

Helburuak

- Lan behartuaren eta esklabutza kontzeptu nagusiak ulertzea.
- **Entzumen aktiboa** eta **analisi-gaitasuna** garatzea eduki historiko konplexuen aurrean.
- Lan behartuaren fenomenoak gaur egungo arazoekin lotzea.
- **Ahozko adierazpena** eta **hausnarketa kritikoa** hobetzea.

1. Entzun aurretik (aktibazioa eta testuingurua)

Iraupena: 10 minutu

Helburua: aurretiko ezagutzak aktibatu eta interesa piztea gaiaren inguruan.

Ariketa – “Pisua duten hitzak”

- Irakaskleak hitz hauek bistaratzen ditu:
esklabutza – askatasuna – lana – zigorra – duintasuna.
- Ikasle bakoitzak hitz bakoitzarekin lotzen duen ideia edo hitz bat idazten du.
- Talde txikietan komentatzen dute zer lotura izan dezaketen **lan behartuak** eta **esklabutzak**.
- Ideiak partekatzen dira eta podcasta entzun aurretik sortzen diren galderak jasotzen dira.

2. Podcastaren entzumen aktiboa

Iraupena: 15 minutu

Helburua: aipatzen diren kontzeptu nagusiak eta aldaketa historikoak antzematea.

Ariketa – “Entzun eta definitu”

- Ikasle bakoitzak hiru zutabeko fitxa bat du:
 - o *Kontzeptuak* (lan behartua, esklabutza, gerrako presoak...).
 - o *Audioan agertzen den definizioa.*
 - o *Adibidea edo testuinguru historikoa.*
- Entzuten duten bitartean, ideia nagusiak edo gako-hitzak idazten dituzte.
- Amaitzean, bikoteka definizioak alderatzen dituzte eta taldearekin zuzendu edo osatzen dituzte.

3. Entzun ondoren (ulermena eta analisisa)

Iraupena: 20–25 minutu

Ariketa – “Denboraren lerro bizia”

- Gelan denbora-lerro bat egiten da lurrean edo horman.

- Talde bakoitzari garai edo adibide bat ematen zaio:
Mesopotamia, Egipto, Erroma, Erdi Aroa, Amerikaren kolonizazioa, XX. mendea, egungo garaia...
- Kronologikoki kokatu behar dira eta azaldu laburki garai hartan zein esklabutza edo lan behartu mota zegoen.
- Gainerako taldeek entzun eta galderak egin edo konparazioak proposatzen dituzte.

4. Hausnarketa kritikoa

Iraupena: 30 minutu

Ariketa – “Ez nik aukeratutako lana”

- Podcasteko edukia oinarri hartuta, ikasleek hausnartzen dute:
Zein da alde nagusia lan egitearen eta lan egitera behartuaren artean?
- Taldeetan, bi pertsonaien arteko elkarriketa labur bat idazten edo antzeztzen dute:
 - o Borondatez lan egiten duen pertsona bat.
 - o Lan behartua jasaten duen pertsona bat.
- Bi pertsonaien emozioak, eskubideak eta galtzen edo mantentzen duten duintasuna adierazi behar dituzte.
- Antzezpenak edo irakurketak egiten dira eta emozioei buruzko analisia egiten da.

5. Amaiera adierazkorra

Iraupena: 15 minutu

Ariketa – “Iraganetik gaur egunera”

- Ahoz edo ahots-ohar labur batean ikasle bakoitzak erantzuten du:
 - o Zer izan da zuretzat harrigarriena podcastetik?
 - o Zergatik uste duzu gaur egun oraindik esklabutza existitzen dela?
 - o Zer egin genezake, gizarte edo norbanako gisa, hori saihesteko?
- Erantzun guztiekin horma-irudi edo *hitz-hodei* bat osa daiteke, hala nola hitz hauekin: *askatasuna, justizia, errespetua, giza eskubideak*.